


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentek %0,1 egin zuten behera 2018ko bigarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, txikizkako merkataritzak %0,2 egin zuen behera, prezio finkoetan

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak %0,1 txikitu zituen salmentak 2018ko bigarren hiruhilekoan aurreko urteko aldi beraren aldean, prezioen eragina behin kendua, Eustaten datuen arabera. Sektorearen salmentek, gasolina-zerbitzuguneak aintzat hartu gabe, %0,2 egin zuten behera, urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, salmenta-indizeak %0,1eko igoera erreala izan du, urtaroarean arabera eraginak ezabatu ondoren.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreen arabera, elikagaigintzak %1,3 areagotu zituen salmentak 2018ko bigarren hiruhilekoan, gainerako produktuen txikizkako merkataritzak %1,4 egin zuen behera eta automobilgintzarako erregaiaren salmentak %1,2 gora. Hori guztia, 2017ko bigarren hiruhilekoaren aldean eta prezio finkoetan.

Elikagaigintzaren txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatuak %2,2 egin zuen behera, eta elikagaiak nagusiak diren ez-espezializatuak %3,0 egin zuen gora.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan aldakuntza negatiboak izan dira azpisektore guztietan. Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritza %1,6 jaitsi zen, eta etxeko ekipamenduan espezializatutakoa %0,6; beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako merkataritzak eduki zuen aldakuntzarik negatiboena, %2,8koa, eta, azkenik, merkataritza ez-espezializatuak, gainerako produktudunak bereziki, %0,4 egin zuen behera, guztiak prezio finkoetan.

Lurraldeen arabera, igoera erregistratu da Araban eta Gipuzkoan urte arteko salmentetan, %0,1ekoa kasu bietan eta termino errealetan, baina Bizkaian %0,3ko jaitziera gertatu da 2017ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AE osoan txikizkako merkataritzako sektorean okupatuen kopurua 2018ko bigarren hiruhilekoan %0,3 hazi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta %0,3 ere hazi da 2018ko lehen hiruhilekoarekin konparatua.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. II/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	-0,1	0,1
Araba/Álava	0,1	-0,6
Bizkaia	-0,3	0,1
Gipuzkoa	0,1	0,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	1,3	-0,3
Elikagaietan espezializatuta	-2,2	-0,2
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	3,0	-0,4
Beste produktuak	-1,4	0,4
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-1,6	-0,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,6	-1,1
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-2,8	0,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-0,4	0,3
Automoziorako erregaia	1,2	0,5
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-0,2	0,1
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	0,3	0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMI t)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62